

BADALAB. KUTXAZ KANPO. 2026

Gasteizko Euskaldunentzako Jabetze Eskola.

Zertan ari gara?

Izaskun Arrue Kulturgunearen eta UEUren artean antolatutako Gasteizko Euskaldunentzako Jabetze Eskolak bi edizio egin ditu jada, eta hirugarren ediziora begira jarrita gaude orain. Bide horretan asko ikasi dugu, eta jabetze-prozesuei buruz pentsatzeko aukera ere izan dugu. Bideak berak “eskatu” digu hori dena, egia esan.

Orain arte

Errepasso azkar bat eginez gero, garbi ikusten da hori:

Lehenengo edizioan, “jabetzearen” kontzeptua (eta praktika) behar bezala landu edo gauzatu ez izanaren sentsazioa izan genuen antolatzaileok, ikasturtearen amaieran. Horren eraginez, pare bat helburu jarri genituen ikasturte berrirako: jabetze-prozesuekin lotura zuzena duten esperientziak ezagutzea (horren ondorio izan zen, adibidez, lehenengo saioa jabetze feministarako eskolei buruzkoa izatea, horiexek baitira egitasmo honen oinarrian dauden esperientziak) eta guk jorratu nahi genituen gaiak jabetzearen ikuspegiarekin estuago lotzea (adibidez, hizlariet hitzaldietarako gaiak proposatzerakoan, jabetzearen ikuspegia bertan txertatzeko eskatzea). Neurri batean, helburu horiek lortutzat eman genituen.

Hirugarren ediziora begira, aurrerago ikusiko dugun bezala, jabetze-prozesuaren mailari edo dimentsionamenduari beste buelta bat eman, eta kolektibora begira jartzeko asmoa dugu.

Bitartean, hona hemen jabetze-prozesuekin lotutako hainbat hausnarketa:

Zer da jabetzea?

Jabetze-prozesuak feminismoaren irakaspen bat dira. jabetze feministarako eskolek, oinarrian, emakumeek bizi duten bazterkeria eta gutxiespen egoeraz jabetzeko tresnak ematea dute helburu.

Hizkuntza eta boterea ezin badira banatu, hizkuntza gutxituen komunitateetako kideok jabetu beharra dugu gure lekua zein den. Hitz egiten dugun horren arabera sailkatzen gaituzte, edo sailkatzen dugu gure burua.

Ohartzen gara?

Jabetzearen lehenengo pausoa da ohartzea. Gure ingurunearen behar bezalako analisi bat egiteko gai garela uste dugun arren, behin eta berriz berrikusi behar dugu analisi hori. Hizkuntza baten erabilera askotarikoa eta aldakorra da: hizkuntza-praktika, ezer bada, dinamikoa da.

Horrez gain, ez gara ohartzen nolako gauzak sortzeko eta artikulatzeko gai garen. Edo, bestela esanda, ez gara konturatzen non gauden, eta lan-tresna egokiak eskura izanda noraino joan gaitzkeen.

Denboran zehar

Demagun, adibidez, gure hizkuntza normaltasunez erabiltzearen ondorioz, gutxietsiaren kontzientzia hartzen dugula. Egin dugu lehenengo pausotako bat. Etorkizunean, munduak daraman martxarekin, hala izaten jarraituko dugun edo ez irudikatzea litzateke bigarren pausoa.

Gure buruari aurrea hartzea ere bada jabetzea.

Kokatua baina urruna

Gasteizko euskaldunentzako jabetze eskolen saioetan, ariketa praktikoak egiterakoan, ahalegina egin dugu izen propioak erabiltzeko. Leku-izenak, pertsona-izenak, erakunde eta mugimenduen izenak. Jabetu behar duenak, kokatua behar du.

Bestalde, gonbidatuen eta parte-hartzaileen artean egindako ekarpenen artean, euskalgintzaren “nukleo gogorretik” urrun daudenak izan dira interesgarrienetakoak. Beste diziplina batzuetan lanean ari direnenak, beste kezka batzuetatik datozenenak. Agian gugandik urrun samar sentitzen dugun bulkada batekin datozen jende berriarenak.

Hiru mailen artean dantzan

Jabetze eskolek hiru mailatan lan egiten dutela erakutsi digu feminismoak, maila teoriko-politikoan, maila kolektiboan, eta maila indibidualean. Sarri, maila indibidualean jabetutakoek zailtasunak izaten dituzte hori dimentsio kolektibora eramateko, eta, ondoren, politizatzeke. Gasteizko jabetze eskolan, paradoxa

dirudien arren, alderantzizko bidea egiteko ditugu zailtasunak: maila teoriko-politikoan jardun gara (formazioaren ikuspegitik) orain arte, eta ezin izan dugu ikasitakoa kolektibizatu, eta, are gutxiago, norbanakoaren neurria ekarri. Noski, hiru mailek elkar elikatzen dute, eta bakarrean aritzeak ez du esan nahi gainerakoetan (neurri batean) eragiten ez denik. Hala ere, Gasteizen, “kokapenari” garrantzia eman arren, zaila egin zaigu behar bezalako neurria hartzea.

Horri buruz pentsatuta, ematen du, 3. Ediziora begira, kolektiboaren neurrian aritzeko aukera izan dezakegula. Gasteizko euskalgintzak badu bere egitekoaz, artikulazioaz, hiri-mailako antolamenduaz... pentsatzeko gogoia. Jabetze eskola tresna erabilgarria izan daiteke horretarako.

Maila indibidualari dagokionean, berriz, une honetan ez da Gasteizko Jabetze Eskolaren lehentasuna. Ez daukagu behar besteko baliabiderik, irismenik, bolumenik, horretarako. Gainera, bestelako jabetze- eta ahalduntze-estrategiak (Euskaraldia, TELP tailerrak...) ere eskura ditugula kontuan hartu beharra dago.

Hartu eta eman

Jabetzeak aktiboa behar du izan: entzunda bakarrik zaila da kontzientzia hartzea. Eta prozesua joan-etorrikoa denean da interesgarrien. Gasteizko eskolan erabili izan dugun formatuak hori bilatu du, nahiz eta askotan ez dugun asmatu behar besteko etekina ateratzen.

Jabetzea ez da ariketa pasibo bat. Marina Garcések hala dio: “Dena dakigu, baina ezin dugu ezer egin”. Inoizko ezagutzarik handiena dugun garaian, ekimenerako ezintasun orokor bat dago zabaldua gizartean. Horri aurre egiteko, Garcésen hitzetan, “gaur egungo sineskorkeria-sistemaren aurka egiteko modua aurkitzea; hori da behar duguna”.

Sineskorkeria-sistemari aurre egiteko adibide ederra eskaini digute orain gutxi Seaskako ikasleek, baxoan egin beharreko azterketak euskaraz egingo dituztela adierazi dutenean. Horixe da jabetze-prozesu bat ekimenarekin bateratzea.